

M.U.k 2007/2008 ikasturteari eman dio hasiera

2007/10/19

Mondragon Unibertsitateak 2007/2008 ikasturteari eman zion hasiera urriak 18an eguerdiko 12:00etan, Arrasateko Amaia antzokian eginiko ekitaldi ofizialean.

Inaugurazio-ekitaldian, honako hauek izan ziren: Juan Jose Ibarretxe Lehendakaria; MCCko (Mondragon Corporación Cooperativa) presidentea, Jose M^a Aldekoa; Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua, Tontxu Campos; Mondragon Unibertsitateko errektorea, Iosu Zabala; eta Mondragon Unibertsitateko presidentea, Javier Sotil. Halaber, honako hauek ere azaldu ziren ekitaldira: Gipuzkoako Diputatu Nagusia, Markel Olano; Euskal Herriko Unibertsitateko errektorea, Juan Ignacio Perez; eta Deustuko Unibertsitateko errektorea, Jaime Oraá. Ikasturteari hasiera emateko, Javier Sotil Mondragon Unibertsitateko presidentea 2006/2007ko Ikasturtearen Memoria Akademikoa aurkeztu zuen. Ondoren, Jaione Ganzarain Mondragon Unibertsitateko doktore eta irakasleak hitzaldia eman zuen "Zientzia- eta gizarte-aurrerapena: emoziozko eta ezagutzazko alderdien batasuna" izenekoa.

Mondragon Unibertsitatea

Mondragon Unibertsitatea 1997an sortu zen unibertsitate gisa, baina hura osatzen duten hiru fakultateek aspaldi funtzionatzen zuten. Unibertsitatea eratu zenetik, hamar urte baino gehiago igaro dira eta, denbora horretan, bere gauzak egiteko modua finkatu du unibertsitateak. Berezko irakaskuntza-ereduari eta bere bereizgarriari esker, unibertsitate-erakunde sendoa da Mondragon Unibertsitatea, ezaugarri hauek oinarri dituela: enpresarekiko lotura handia; ikasleen enplegarritasun handia; eta kalitatezko prestakuntza, ezagutza zientifiko-teknikoetan, eta aldi berean, ahalmen eta balioetan oinarritutako hezkuntza eskaintzen duena.

Mondragon Unibertsitateak hiru ezagutza-eremutan garatzen du bere jarduerara. Hona hemen ezagutza-eremuok: zientifiko-teknikoa (Goi Eskola Politeknikoa), enpresakoa (Enpresa Zientzien Fakultatea) eta humanistikoa (Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatea).

2006/2007ko ikasturtean zehar, 3.684 ikaslek ikasi dute Mondragon Unibertsitatean, bai graduako prestakuntzan, bai graduondokoa. Honako titulazio hauek osatzen dute Unibertsitatearen eskaintza akademikoa: lehen eta bigarren zikloetako 25 titulaziok, ingeniariaritzak, enpresa- eta hezkuntza-arloekin lotuek; graduondoko 25 titulak (haietako 5 master ofizialak dira); eta 6 doktorego-ikastarok. Iaz, Mendeberrri eredia graduako titulazioen % 80tan ezarri da.

Iosu Zabalaren hitzaldia

Mondragon Unibertsitateko egungo errektoreak, Iosu Zabalak, ikasturtearen hasiera hitzaldia eman zuen. Esanahi berezia izan du harentzat, errektore gisa egin zuen lehen hitzaldia izan baita.

Ikasturteari hasiera emateko ekitaldi honen abagunea erabili nahi izan zuen errektoreak, eta ikasturte berriaren aurrean, errektore gisa duen erantzukizunetik zer kezka, helburuk eta proiektuk motibatzen duten azaldu zituen. Horrenbestez, Zabalak adierazi zuen Mondragon Unibertsitatea oso une berezian dagoela; izan ere, egungo egoerako zenbait baldintzak "eragin handia izango dute unibertsitateetan, datozen urteetan, bai eta herrialdeko etorkizuneko garapenean berean ere".

Lehenik eta behin, berrikuntzaren berebiziko garrantzia azpimarratu zuen, funtsezko giltzarri gisa gero eta lehiakorragoa den mundu globalizatu honetan aurrera egin ahal izateko; aurrea hartzeko eta besteek eskaintzen ez dizkiguten gauzak eskaini ahal izateko aukera



emango digu eta.

Testuinguru honetan, Errektoreak esan zuenez, "gure Herria berritzailea izatea nahi badugu, nahitaezkoa da gure unibertsitateak, irakasleak eta ikasleak ere berritzaileak izatea.

Ondoren, errektoreak Mondragon Unibertsitatean biltzen diren oinarriko hiru jarduera-eremuak aipatu nahi izan zituen: Prestakuntza arautua, Etengabeko prestakuntza eta Ikerketa.

Prestakuntza arautuari dagokionez, losu Zabalak esan zuen titulazioak Goi Mailako Hezkuntzako Europako Esparrura egokitzea "gaitzitu beharreko erronkarik gertuenetako bat" izango dela. Eta erronka horretan, "Mondragon Unibertsitateak ez du hutsetik abiatu beharrik"; izan ere, eta errektoreak adierazi duenez, "Mondragon Unibertsitatean, Mendeberrri proiektuan buru-belarri sartuta egon gara azken 7 urteotan, eta honek neurri haundi baten testuinguru berriari aurre egitea ahalbidetu digu. "Mendeberrirekin", errektoreak esan zuenez, "irakasleei buruzko ikuspegi tradizionala bertan behera utzi eta nolabait tutore bihurtu ditugu eta ikasketa kooperatiboa eta lan-taldeen garapena sustatzeaz gain, ikasketa autonomoa sustatzen dugu". Egindako bide honi esker, errektorearen iritziz "gure unibertsitatea prestatuta eta oinarrian egokituta dago, Goi Mailako Hezkuntzaren Esparruaren eskakizun guztiak betetzeko."

Halaber, errektoreak berrikuntzaren eta ekintzaitzaren arteko binomioa garrantzitsua dela adierazi zuen, ekintzaitza bultzatu behar dela. Esan zuenez, "hemen hezitako ikasleek ahalik izaera berritzaileak eta ekintzaileak handiena izan dezaten lortu behar dugu, pentsamendu positiboa eta aktiboa izan dezaten".

Etengabeko prestakuntzari dagokionez, losu Zabalak adierazi zuen beharrezkoa dela gazteek "ikasten ikasi dezaten", eta horretan, Mondragon Unibertsitatea "aitzindaria" da. Gainera, errektoreak unibertsitatearen egungo erronketako bat zein den aurreratu zuen: "etengabeko prestakuntzaren formaturik aurreratuenaren alde egitea, presentzialtasuna, birtuala eta lineako ikasketa uztartuz. Gizabanako eta pertsona jakinen prestakuntza-beharrei zein enpresa-mota ororen – korporazio handien (globalizatuak ala ez) nahiz enpresa txikien – beharrei erantzuneko eskaintza garatu behar dugu, pertsona eta enpresa horiek, bestela, beren bilakaera-beharrak asetzeko zailtasun handiak baitituzte".

MUko lehenetsutako hirugarren jarduera-eremuari –hots, Ikerketari– dagokionez, Zabalak gogorarazi zuen Mondragon Unibertsitatea unibertsitate gaztea dela eta oso espezializatua eta bere espezialitateen baitan, ikerkuntzaren arloari ematen ari zaion bultzada aipagarria dela benetan. Doktoreen kopuruaren hazkundera, doktoregoa egiten ari direnena eta zientzia-argitalpenena erakusten dutenaren arabera.

Halaber, azpimarratu zuen "gure apustua espezializazio-gune oso jakin batzuetan mamitu behar dugula, gune jakin horietan zientzia-bikaintasuna eta aitorten orokorra lortzeko".

Hitzaldiaren amaieran, Mondragon Unibertsitateko errektoreak pertsonen unibertsitate horretan oso garrantzitsuak direla azaldu zuen.